



OSAKIDETZA

2018ko otsailaren 14ko 176/2018
Erabakiaren bidez, egindako
Oposaketa-Lehiaketarako deia
(EHAA 45 Zkia. 2018ko martxoaren
5ekoa)

Concurso-Oposición convocado por
Resolución 176/2018 de 14 de febrero
de 2018 (B.O.P.V. N° 45 de 5 de
marzo de 2018)

KATEGORIA:

GOI-MAILAKO TITULUDUNA / LETRADU - GOI-
MAILAKO TEKNIKARI JURIDIKOA

CATEGORÍA:

TITULADO SUPERIOR - LETRADO / TÉCNICO
SUPERIOR JURÍDICO

Proba eguna: **2018ko ekainaren 30a**
Fecha prueba: **30 de junio de 2018**

2. ariketa / 2º ejercicio

1. KASU PRAKTIKOA

A). Zirkulazio-istripu baten biktima batek larrialdiko Ebakuntza Kirurgikoa (EK) behar du, bere arnasketa-sistemak kalte larriak jasan dituelako. Biktimak 16 urte eta bi hilabete ditu, eta bere bi gurasoekin iritsi da Osakidetzaren ospitalera.

EK horretan, odol-transfusioa behar du; bere gurasoetako batek medikuari esan dio transfusioa onartzen duela, eta besteak, berriz, ez duela onartzen.

Galderak (arrazoituz erantzun behar dira):

- 1.- Modu arrazoituan azaldu egoera honen ebazpena.
- 2.- Aldeetakoren baten jokabidea ilizitu penaltzat jo liteke? Arrazoitu erantzuna.
- 3.- Osakidetzari erantzukizunen bat egotzi ahalko litzaioke?

B). Aurreko adibide berean, adingabeak, bere osasuna berreskuratu ondoren, adoptatua dela deskubritu du, hau da, bere ama biologikoa ez dela betidanik amatzat jo duen emakumea. Adingabeak bere kabuz eskaera bat aurkeztu du bere Historia Klinikora sartzeko, eta eskaerari bere jaiotza-agiria atxiki dio; agiriak dio Gasteizko Txagorritxu Ospitalean jaio zela, 2002ko maiatzaren 2ko 15:30ean, eta dokumentuan, adingabearen amaren datu pertsonalak ezabatuta daude.

Egoera hori kontuan hartuz, adingabeak jakin nahi du ea ordu eta egun horretan jaiotzaren bat izan ote zen Gasteizko Txagorritxu ospitalean, eta erantzuna baiezkota bada, erditzearen dokumentazioaren kopia bidal diezaiotela eskatzen du. Eskatutakoa egiaztatzean ikusi da ospitalean jaiotza bakarra izan zela egun eta ordu hartan.

- 1.- Osakidetzak adingabeak eskatutako dokumentazioa entregatu beharko luke?
- 2.- Egitekotan, zer baldintzatan entregatuko luke?
- 3.- Adingabeak bere ama biologikoa nor den jakiteko eskubidea du? Osakidetzari dagokio adingabeari informazio hori jakitera ematea?
- 4.- Osakidetzak egiaztatzen badu adingabearen ama hilda dagoela, pertsona horren Historia Klinikora sartzeko utzi beharko luke?

2. KASU PRAKTIKOA

1.- Patxi 2015eko maiatzean bukatu zuen Traumatologiako Mediku Espezialista prestakuntza, eta Osakidetzan lan egin nahi du kategoria horretan.

Nolako lan-loturak izan litzake Osakidetzan lan egiteko?

2.- EPEra aurkeztu da, eta lanpostu bat lortu du Osakidetzan, estatutupeko langile finko gisa, eta bere destinoa Traumatologia Zerbitzuan dago. Egia esan, Unitate horretantxe egon zen lanean, aldi baterako estatutupeko langile gisa. Pozik dago, Istripu Mutua batean duen lanaldi partzialeko lanpostua mantendu ahalko duelako, Osakidetzan egiten duen goiz, arratsalde eta gaueko txanden sekuentziak ez diolako galarazten astean bitan entitate horretara joatea traumatologo gisa kontsultan aritzera (astean sei orduz).

Bi lanak bateragarriak dira, hau da, Osakidetzako traumatologoa izatea eta istripuen mutuan traumatologoa izatea? Arrazoitu zergatik.

Behin-behineko langile izaten jarraituko balu, bateragarriak izango lirateke bi jarduerak? Arrazoitu zergatik.

Osakidetzak bateragarritasuna ukatuko balio baina halere traumatologoak bi jarduerak mantenduko balitu, zer arau-hauste leporatu ahalko litzazkioke?

3.- Osakidetzaren zerbitzu-erakunde batean behin betiko lanpostu bat lortu ondoren, zerbitzu-erakunde horren Gerentzia Zuzendaritzak, 2017ko martxoaren 15ean, deialdi bat argitaratu du Traumatologiako Atalburu lanpostua betetzeko, izendapen aske bidez, eta deialdian jasotako baldintzen artean adierazten da nahitaezkoa dela Traumatologiako Mediku Fakultatibo Espezialista lanpostuan lau urtetik gorako esperientzia duen lan-kontratudun langilea, estatutupekoa edo funtzionarioa izatea eta euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna ziurtatuta izatea.

Patxi ez dago ados deialdiaren baldintzekin, eta horregatik, gora jotzeko errekurtsio bat aurkeztu du deialdiaren kontra 2017ko apirilaren 15ean.

Zertan oinarrituko litzateke errekurtsio hori eta nola ebatziko litzateke?

4.- 2017ko ekainaren 1ean, Patxi atxikita dagoen zerbitzu-erakundearen Gerentzia Zuzendaritzak Lehen Mailako Arretako Unitateko burua izendapen aske bidez izendatzeko deialdia argitaratu du, eta lan-kontratudun langileek, estatutupekoek eta funtzionarioek parte har dezakete deialdi horretan. Patxi eta haren bikotekideak eskaera aurkeztu dute dagokion epearen barruan; Patxiaren bikotekidea erizain lanpostu baten titularra da Lehen Mailako Arretako Unitate horren osasun-zentroan.

Azaldu deialdi horren terminoak egokiak diren aplikatzen den araudiari dagokionez, eta azaldu bi interesdunak izan daitezkeen Unitate horren buru izateko hautagai.

5.- 2017ko urriaren 1ean, Osakidetzaren zerbitzu-erakunde baten zuzendari mediku lanpostua betetzeko deialdia argitaratu da, eta Patxik eskabidea aurkeztu du, epearen barruan eta eskatutako moduan. Azkenean, Osakidetzatik kanpoko osasun-zentro bateko fakultatibo bat izendatu dute lanposturako, eta Patxik izendapenarekin ez dagoela ados adierazi du.

Nori dagokio aipatutako deialdia eta dagokion izendapena egitea? Adierazi izendapen hori zuzena ala okerra den, azaldu zein diren bere ezaugarriak eta lotura mota.

6.- Aurreko kasuan Osakidetzako edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario bat izendatu izan balute zuzendari mediku lanposturako:

Nork egingo zukeen izendapena? Bietako edozeinen izendapena izango litzateke baliozkoa? Zer egoera administratibotan geratuko lirateke beren jatorrizko Administrazioetan? Zer ondorio izango luke haien aurretiazko lan-lotura bertan behera geratzeak?

7.- Traumatologoa oso integratuta dago bere traumatologia taldean, eta horregatik, zeladore batek esan dionean kezkatuta dagoela Ospitalean ingresatu berri duten senide baten osasun-egoeragatik, traumatologoa pazientearen Historia Klinikora sartu da, bere lankidea lasaitzeko asmoz.

Historia Kliniko horretara sartu izana zehapen-arrazoia izan liteke? Oinarritu zure erantzuna eta zehaztu zer prozedura jarraituko litzatekeen.

3. KASU PRAKTIKOA

- A) Osakidetzak 50 urteko baino gehiagoko gizonen artean Prostatako Patologiak Goiz Detektatzeko Programa berri bat ezarri nahi du. Programa horretan, pazienteek proba erradiologiko batzuk egiten dituzte beren borondatez. Horretarako, pazienteei postaz eman ahal zaie hitzordua, eta nahitaezkoa da pazienteek lehenago berrestea proba egin nahi dutela. Programa dagokion bezala onartua izan da eta 3 milioi euro bideratu zaizkio aurrekontuan.

Osatek S.A. erakundea proba erradiologikoak egiteko osatuta dagoen sozietate publiko bat da.

Galderak:

1. Osakidetzak Osatek S.A. erakundeari eman ahal dio proba erradiologikoak egiteko enkargua, ala administrazioko kontratazioaren arloan indarrean dagoen araubidearen kontrakoa izango litzateke? Labur azaldu zure erantzuna.
 2. Zer baliabideren bitartez eman ahalko litzaioke Goiz Detektatzeko Programa hori egiteko enkargua Osatek S.A erakundeari? Labur azaldu zure erantzuna.
 3. Hautatutako konponbide horrek 5 urteko iraupena izan lezake? Labur azaldu zure erantzuna.
- B) Lehenagoko aurrekariekin (A). Osakidetzako fakultatibo urologo batek Prostatako patologiak goiz detektatzeko programan parte hartu du, paziente gisa, eta malformazio prostatiko deigarri samar bat aurkitu diote, baina ez dirudi konplikazio sanitario handirik duenik.
- Proba erradiologiko horiek egin zizkietenetik urte batzuk igaro ondoren, urologoa urologiaren arloko nazioarteko biltzar batera joan da, eta biltzarreko hitzaldi batean, bere malformazio anatomikoaren erradiografia ikusi du proiektzio batean, hitzaldia eman duen Osakidetzaren fakultatiboak zuzenean jarri duelako, baina erreferentzia guztiak kenduta (NANa, OIT-Osasuneko Identifikazio Txartela, IKK, telefonoa, helbidea...).

Egoera hori ikusita, urologoak bere pribatutasuna defendatzeko prozedura bat martxan jartzea erabaki du, eta prozedura horretako izapideetan, honakoa frogatuta utz daiteke: 1) Osatek S.A. erakundeak Osakidetzari pazientearen informazio erradiologikoa entregatu dio; 2) Osakidetzak informazio hori "Historia Klinikoa" fitxategian sartu du. 3) Urologo interesdunak ez du baimenik eman Goiz Detektatzeko Programan egin zizkieten erradiografiak erakutsi daitezen; 4) Hitzaldian hiru erradiografia erabili dituzte, eta guztiek zuten OIT zenbakia atxikita, Biltzarreko hitzaldian zenbakia ezabatu zuten arren.

Galderak:

1. Kasu honetan Osatek erakundeak Osakidetzari datu pertsonal batzuk laga dizkiola esan liteke? Labur azaldu zure erantzuna.
2. Kasu honetan pazientearen datu pertsonalen jendaurreko erakusketa bat egon dela esan liteke? Labur azaldu zure erantzuna.
3. Egoki baderitzo, urologo interesdunak zer Agintaritza Publikoren aurrean aurkeztu beharko luke kexa edo erreklamazioa?
4. Kasuan kasuko prozeduran, nor izan lirateke Osatek-en eta/edo Osakidetzaren solaskide posibleak Agintaritza Publiko horrekin harremanak izateko?
5. Agintaritzaren azken ebazpena noren aldekoa izan litzateke? Labur azaldu zure erantzuna.
6. Agintaritza Publiko horren azken Ebazpenaren emaitza zeinahi izanda ere, interesdunak Osakidetzari 100.000 euroko ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat jarriko balio, zer komeniko litzateke, erreklamazioa onartzea ala baztertzea? Labur azaldu zure erantzuna.

CASO PRÁCTICO 1

A). Víctima de accidente de circulación que requiere Intervención Quirúrgica (IQ) de urgencia, al tener afectado de forma grave el sistema respiratorio. La víctima es un menor de 16 años y dos meses de edad, que llega al centro hospitalario de Osakidetza acompañado de sus dos progenitores.

La IQ requiere transfusión sanguínea, manifestando al facultativo uno de los progenitores que la admite y el otro que no.

Preguntas (a responder de forma motivada):

- 1ª.- Razone motivadamente la resolución de la situación.
- 2ª.- ¿Podrían alguna de las partes incurrir en ilícito penal? Razone la respuesta.
- 3ª.- ¿A Osakidetza se le podría imputar algún tipo de responsabilidad?

B). En el mismo ejemplo anterior, una vez restablecida la salud del menor, el mismo descubre que es hijo adoptado y que su madre biológica es una mujer distinta de quien siempre ha tenido por su madre. El menor presenta por su cuenta una solicitud en la que pide el acceso a su Historia Clínica (HC), adjuntando a la petición una partida de nacimiento en la que figura que el menor nació en el Hospital Txagorritxu de Vitoria-Gasteiz el a las 15,30 horas del 2 de mayo de 2002, teniendo por madre una persona cuyos datos personales se han borrado en el documento.

En esas circunstancias, el menor solicita conocer si consta nacimiento alguno a esa hora y día en el referido hospital de Vitoria-Gasteiz, y que se aporte, en caso afirmativo, copia de la documentación propia del parto. Verificada la situación consta un único nacimiento a esa hora y ese día en el centro hospitalario.

Preguntas

- 1ª.- ¿Debería Osakidetza entregar la documentación solicitada por el menor?
- 2ª.- ¿En qué términos se haría esa hipotética entrega?
- 3ª.- ¿Tiene el menor derecho a conocer la identidad de su madre biológica?
¿Es Osakidetza quien debe revelársela?
- 4ª.- Si Osakidetza verifica que la madre del menor es una persona fallecida, debería permitir el acceso a la HC de dicha persona?

CASO PRÁCTICO 2

1º.- D. Patxi, que ha finalizado su periodo de formación como Médico Especialista en Traumatología en el mes de mayo de 2015, desea prestar sus servicios en Osakidetza en la categoría indicada.

¿Qué tipos de vinculación serían posibles para que fuera así?

2º.- Se presenta a la OPE y obtiene plaza en Osakidetza como personal estatutario fijo, con destino en el Servicio de Traumatología. En realidad, es la misma Unidad en la que venía trabajando como personal estatutario temporal. Se siente satisfecho ya que va a poder mantener su trabajo a tiempo parcial en una Mutua de Accidentes, pues la secuencia de guardias que viene realizando en Osakidetza no le impide acudir dos veces por semana a esta entidad para pasar consulta como traumatólogo, con un total de seis horas.

¿Son compatibles ambos trabajos, Traumatólogo en Osakidetza y Traumatólogo en la Mutua de accidentes? Razone los motivos.

En caso de continuar siendo eventual, ¿serían compatibles ambas actividades? Razone los motivos.

En el caso hipotético de que Osakidetza le denegara la compatibilidad, ¿en qué tipo de infracciones podría incurrir este facultativo si mantiene ambas actividades?

3º.- Una vez obtenida plaza definitiva en una organización de servicios de Osakidetza, la Dirección Gerencia de la misma, en fecha 15 de marzo de 2017, publica convocatoria para la cobertura de la Jefatura de Sección de Traumatología, a proveer mediante libre designación, en la que se incluye como requisito ser personal laboral, estatutario o funcionario con una experiencia profesional mínima de cuatro años en el puesto de Facultativo Especialista Médico en Traumatología, así como contar con la acreditación del perfil lingüístico 3 de euskera.

D. Patxi, disconforme con los términos de la convocatoria, presenta recurso de alzada contra la misma en fecha 15 de abril de 2017.

¿En qué se basaría el citado recurso y cómo se resolvería?

4º.- En fecha 1 de junio de 2017 la Dirección Gerencia de la organización de servicios a la que está adscrito D. Patxi publica convocatoria de Jefe de Unidad de Atención Primaria a proveer mediante el sistema de libre designación, en la que se permite la participación de personal laboral, estatutario y funcionario. Tanto D. Patxi como su pareja, que ostenta en titularidad plaza de Enfermería en el centro de salud de la

citada Unidad de Atención Primaria, presentan la correspondiente solicitud dentro de plazo.

Fundamente la adecuación de los términos de la citada convocatoria a la normativa de aplicación y aclare la posibilidad de acceso de ambos candidatos a la Jefatura.

5º.- En fecha 1 de octubre de 2017 se publica convocatoria para la cobertura del puesto de Director Médico de una organización de servicios de Osakidetza, a la que D. Patxi presenta la correspondiente solicitud en tiempo y forma. Resulta designado un facultativo de un centro sanitario ajeno a Osakidetza, mostrando D. Patxi su disconformidad con dicha designación.

Indique a quién compete efectuar la convocatoria citada y el nombramiento correspondiente y detalle la corrección o incorrección del mismo indicando sus características y tipo de vinculación.

6º.- Si en el supuesto anterior se hubiese designado para el desempeño de las funciones de Director Médico a un profesional que ostentase la condición de funcionario de carrera de Osakidetza o de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

¿Quién le hubiera nombrado? ¿Sería válido el nombramiento de cualquiera de los dos?, ¿En qué situación administrativa quedarían, en su caso, en sus respectivas Administraciones de origen y qué consecuencias tendría el cese en su vinculación previa?

7º.- Este Traumatólogo está muy integrado en el equipo de traumatología, por eso cuando uno de los celadores le cuenta su preocupación por el estado de salud de un familiar recién ingresado en el Hospital, él accede a la Historia Clínica de este paciente con el fin de tranquilizar a su compañero de trabajo.

¿Podría ser objeto de sanción el acceso a esta Historia Clínica? Fundamente la respuesta y detalle el procedimiento a seguir.

CASO PRÁCTICO 3

A). Osakidetza desea implantar un nuevo Programa de Detección Precoz de Patologías Prostáticas en varones mayores de 50 años. Dicho Programa consiste en la realización voluntaria de unas pruebas radiológicas, a las que los pacientes pueden ser citados por correo postal y siempre que den su previa confirmación a la realización de la prueba. El Programa ha sido aprobado oportunamente y cuenta con la consignación presupuestaria de 3 millones de euros al efecto.

Osatek S.A. es una sociedad pública que está configurada para realizar pruebas radiológicas.

Preguntas:

1ª ¿Puede Osakidetza encargar la realización de las pruebas radiológicas a Osatek S.A. o ello sería contrario al vigente régimen de contratación administrativa? Justifíquese someramente la respuesta.

2ª ¿A través de qué instrumento/s se podría encargar la realización del Programa de Detección Precoz a Osatek S.A? Justifíquese someramente la respuesta.

3ª ¿La solución elegida podría tener una duración de 5 años? Justifíquese someramente la respuesta.

B). Con los antecedentes de hecho precedentes (A). Un facultativo urólogo de Osakidetza se ha sometido al Programa de detección precoz de patologías prostáticas y se le ha descubierto una malformación prostática bastante llamativa que, ello no obstante, no parece tener mayor complicación sanitaria.

Pasados unos años desde la realización de las pruebas radiológicas el urólogo citado acude a un congreso mundial de urología y observa, sorprendentemente, que existe una ponencia en la que un facultativo de Osakidetza expone directamente una proyección en la que muestra la radiografía donde figura su malformación anatómica, a la cual, ello no obstante, se le han eliminado todas las referencias de DNI, Tarjeta de Identificación Sanitaria (TIS), CIC, teléfono, dirección, etc.

Ante la situación anterior el urólogo decide promover un procedimiento en defensa de su privacidad, durante cuya tramitación se puede declarar probado que: 1) Osatek S.A. ha entregado a Osakidetza la información radiológica correspondiente 2) Osakidetza ha integrado la información suministrada en el Fichero "Historia Clínica". 3) El urólogo afectado no ha prestado autorización para la divulgación de las radiografías realizadas en el Programa de Detección Precoz 4) Han sido tres radiografías las utilizadas para la ponencia, todas ellas con el número de la TIS adjuntado, si bien en la exposición realizada en el Congreso dicho número ha sido eliminado.

Preguntas:

1ª ¿Podría considerarse que en el supuesto ha habido una cesión de datos personales de Osatek a Osakidetza? Justifíquese someramente la respuesta.

2ª ¿Podría considerarse en el supuesto que ha habido una exhibición pública de datos personales? Justifíquese someramente la respuesta.

3ª Caso de entenderse oportuno, ¿ante qué Autoridad Pública debería presentar la queja reclamación el urólogo interesado?

4ª En el procedimiento que se instruyera al efecto ¿quiénes serían los posibles interlocutores de Osatek y/o Osakidetza para relacionarse con dicha Autoridad Pública?

5ª ¿Cuál se considera podría ser el sentido de la resolución final de la Autoridad? Justifíquese someramente la respuesta.

6ª Con independencia del resultado final de la Resolución de la Autoridad Pública, ¿se entendería conveniente una estimación o desestimación de una reclamación por responsabilidad patrimonial que el interesado hubiese cifrado en 100.000€ frente a Osakidetza? Justifíquese someramente la respuesta.